266. zk.
Bigarren aroa
Abenduak 1
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Irungo arabiarren begirada

Erreportajea
El Establo Piratari buruzko erreportajea.
13. orrialdea

Kirolak
Mariño Bigarren Mailara egokitzen ari da.
8. orrialdea

3 Erreportajea: Caser Anakak 13 urte bete ditu.
5 Inkesta: Zer egingo duzu Sortzez Garbiaren zubian?
6 Berriak: Euskararen Nazioarteko eguna eta Euskal Kostaldeko Gabonetako Azoka.
7 Elkarrizketa: Gerardo García, Irungo Argazki Elkarteko Presidentea.
9 Kirolak: Gabonetako Krosa.
10 Erreportajea: Genero indarkeriaren aurkako jarduerak.
11. Haurren lanak Toki Alai HH
12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola.
14 Gazte infor
15 Agenda

Argazki lehiaketa

Andoni Aguirre
Udazkenean, iluntzean, kolore arrosa politak ikusteko aukera izaten dugu Irunen.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 11177

Sarjia kalea

Goiko argazkia 1956koa da. Irungo Atseginak antolatutako Erraladoiak ikus daitezke, Euskal Jiran, Sarjia kaletik pasatzen. Sarjia kalea, alde zaharraren erdian kokatua dago. Arbelaitz jauregiaren atzealdean dagoen parkeari zor dio izena. Jauregiaren jabegokoa zen, parke eta lorategi publiko bilakatu baino lehen.

Sarjia hitzaren esanahiari dagokionez, J. A. Loidik esaten digu "sargi" hitzak behenafarreraz "atea, sarrera, sarbidea" esan nahi duela, baina "jardin" hitzetik ere etor daitekeela, "jart"= "baratz" frantses zaharraren txikigarritik.

Kale honek ez zuen beti izen bera eduki. 1860ko otsailaren 20tik aurrera, "Calle de Tetuan " izena eduki zuen. Afrikako Gerra horretan (1859-1960) gerra gertakaririk aipagarriena 1860ko otsailaren hasierako Tetuango borroka izan zen. Tropa espainiarrek Abbasek eta Muley Ahmed Sultanaren anaiak gidatutako indar marokoarren kanpamenduak okupatu zituzten: hilaren 5ean Tetuanen bertan sartu ziren.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
Irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Irungo arabiarren begirada

Komunitate islamikoko lau lagun bildu dira, integrazioaz, islamofobiaz eta nazioarteko egoeraz hitz egiteko

Azaroaren 14ko goizaldean, ikur judutar bat margotu zuen norbaitek Irungo meskitaren aurrealdean. Parisko atentatuen ondoren EAEko komunitate islamikoak salatutako lehen erasoa izan zen. Barakaldoko eta Gasteizko meskitetan ere ikur eta irain islamofoboak agertu ziren hurrengo egunetan. "Salaketa jarri dugu, baina ez diogu garrantzia handirik eman. Batez ere, Irunen halako zerbait gertatzen den lehen aldia delako. Nahiago izan dugu lasai hartu eta ahaztu", argitu du Mohammed Mbarek sahararrak. Lau magrebtar elkartu ditugu Adiskidetuak elkartearen egoitzan. Etorkinentzako aholkularitza juridikoa eskaini ohi dute bulegoan, baina gaur tertuliarako gune bihurtu da.

Argazkian Mourad Abbidi, Abelaziz Bahouss eta Bouchra Bahouss.

Zuhurtziaz, eta asaldatu gabe bizi dute Irungo komunitate arbabiar-islamikoan islamofobia erasoen gaia. Dena den, kezka ere badute, jakina. "Gure komunitatean badago jendea hamabost-hogei urte daramatzana Irunen bizitzen, arazorik eduki gabe. Baina Parisko atentatuen moduko gertaerak izaten direnean, elkarbizitzan eragin kaltegarria izan dezakete", adierazi du Mourad Abbidi marokoarrak. Lau urte daramatza Irunen, eta ez du inoiz arazo handirik izan, ez bizilagunekin ezta kalean ere. "Jendea errespetatzen duzunean, zu ere errespetatzen zaituzte", erantsi du. Aitortu du, hala ere, begirada deserosoak jasan behar izaten dituela, bizar luzea eta iluna daramalako.

"Bizarra daramaten gizonek eta beloa daramagun emakumeok sufritzen dugu begirada eta zurrumurru gehien", onartu du Bouchra Bahoussek: "Hala ere, ezagutzen gaituztenean, aurreiritziak alde batera uzten dituzte". Bouchrak harreman handia du bertakoekin. Eraikinean, etorkinen familia bakarra da beraiena. Gainera, eskolako gurasoen elkartean eta elkarbizitza batzordean parte hartzen du, adibidez. Duela urte eta erdi iritsi zen Irunera, Abdelaziz senarrarekin eta seme-alabekin batera. Lehenago, Teruelen eman zituzten hamabi urte. Integratuta baino, egokituta dagoela uste du Bouchrak: "Integrazioa oso termino zabala dela iruditzen zait. Ni egokitzen ahalegindu naiz, gizarte honetan bizitzea erabaki dudalako".

> "Egokitzen ahalegindu naiz, gizarte honetan bizitzea erabaki dudalako"
>
> Bouchra Bahouss

Jarrera arrazistak, komunikabideek musulmanei buruz ematen duten irudi desitxuratuarekin lotu ditu Mohammedek: "Droga trafikoa eta bestelako gatazkak musulmanekin lotzeak min handia egiten digu". Terrorismoari lotuta ere, hedabideek mezu okerrak zabaltzen dituztela uste dute laurek. "Komunikabideek islamofobiaren alde egiten dute batzuetan. Orokorrean, ezjakintasun handia dago. Guk edozein talde erradikal baztertzen dugu", azpimarratu du Bouchrak. Haiek bezala, musulmanen gehiengo handi batek indarkeria baztertzen duela argi utzi nahi izan dute. Islamaren erroetara jo du Abdelazizek azalpena emateko: "Orain nahasmen handia dago. Baina islamaren oinarria moderazioa da. Bi muturrak dira okerrak: gehiegizko lasaikeria, eta fanatismoa".

EI Estatu Islamikoaren moduko taldeen atzean, Koran liburu sakratuaren interpretazio okerra dagoela berretsi dute hizketakideek. Errekrutatzen dituzten gazteak engainatuta eramaten dituztela uste du Abdelazizek: "Europako auzo marjinaletako jendea hautatzen dute, arabieraz ez dakiena. Hizkuntza ulertzen ez baduzu, interprete baten beharra duzu Korana irakurtzeko, eta interprete horrek nahi duena helarazten du". Azken asteotan protagonista izan diren Parisko Saint-Denis edo Bruselako Molenbeek adibide izan daitezke. Etorkin txiroak biltzen dituzten auzo degradatuak dira. "Ikasteko edo lan egiteko aukerarik ez duten gazteak bizi dira auzo horietan. Noraezean ibiltzen dira, zereginik gabe. Azkenean trafikatzen edo beste delituetan amaitzen dute. EIrentzat oso erakargarriak dira", aipatu du Bouchrak.

> "Mendebaldeko potentziek banatu zituzten herrialdeak, bulegoetan"
>
> Mohammed Mbarek

Ardurak eta irtenbideak

Edonola ere, Estatu Islamikoaren jatorria ez dago Europako auzo marjinaletan, Ekialde Hurbilean baizik. "Mendebaldeko potentziek banatu zituzten herrialdeak, bulegoetan. Gaizki egin zuten bana-keta, hango errealitatea kontuan hartu gabe", gogorarazi du Mohammedek. Ekialde Hurbila lurralde aberatsa da baliabideetan, baina korapilatsua etnien eta islama ulertzeko moduen arteko gatazkei dagokienez. "Mendebaldeko potentziak interes ekonomikoengatik sartu dira, eta sekulako kaosa utzi dute", azpimarratu du Abdelazizek. Estatu Islamikoa kaos horretatik sortu dela uste du marokoarrak: "EEBBek %60 edo %70eko ardura dutela esango nuke".

Estatu Islamikoaren lehen biktimak, Siriako eta Ekialde Hurbileko herritarrak izan dira. "Egunero ehunka lagun hiltzen dituzte, adin guztietako emakumeak eta gizonak. %90 baino gehiago, musulmanak", nabarmendu du Abdelazizek. Gainera, Siriako gerrak ehunka mila errefuxiaturen ihesa eragin du. Drama horren aurrean, Europako herrialdeen erantzuna "lotsagarria" izan dela uste du Mohammedek: "Lehengoan hamar-hamaika errefuxiatu hartu dituztela ikusi nuen telebistan. Bitartean, hotzak eta goseak akabatzen ari dira beste milaka lagun". Arazoari irtenbidea emateko, hegazkinak bidali dituzte mendebaldeko herrialdeek, Siria bonbardatzera. "Frantziak gerran gastatuko duen dirua auzo marjinalak berregituratzen eta biziberritzen erabili behar luke", salatu du Bouchrak. Bestelako irtenbideak badaudela uste dute solaskideek.

> "Islamaren oinarria moderazioa da"
>
> Abdelaziz Bahouss

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Ospatuz, haziz eta hobetuz

Caser Residencial Anakak 13 urte bete ditu

Hamahiru urte beteko ditu abenduaren 13an Caser Residencial Anaka egoitzak. Ospatzeko, jarduera ezberdinak egingo dituzte, abenduaren 11tik 15era. Askotarikoak izango dira ekimenak, egoiliar guztiek gozatu ahal izan ditzaten.

Abenduaren 11, ostirala:

18:00etan: sabel dantza ikastaroa. Aralia dantza eskolak emango du, adin ezberdinetako jendeari zuzendua.

Abenduaren 13a, igandea:

17:00etan: txokolatada.

Abenduaren 14a, astelehena:

13:00ean: bazkari berezia, zentroaren urteurrena dela eta.
17:30etan: ezusteko Bingoa, egoiliarrentzat.

Abenduaren 15a, asteartea:

18:00etan: “Nagusilan” elkarteko emakumeen abesbatzaren emanaldia, Eguneko Zentroan.

Hamahiru urte hauetan Caser Anaka haziz joan da, eta proiektua egonkortu egin da. Azken hilabeteetan bi solairu zaharberritu dituzte, eta gainerakoetan ere lanean ari dira, zentroak etengabeko hobekuntza izan dezan.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

Inkesta

Zer egingo duzu Sortzez Garbiaren zubian?

Beatriz Pérez de Villarreal

Ez naiz hemendik aterako. Zubia pasa ondoren azterketak egin beharko ditut eta ikasteko aprobetxatuko dut. Gainera, azterketak dituen gelako bakarra izango naiz, eta inbidia emango didate, ziur aski. Bestalde, familia guztia hemen geratuko da.

Cristian Ramos

Egun bakarra daukat libre eta horregatik ezin izango dut bidaia txikirik egin. Eskertzen da egun bat libre edukitzea, baina zubia egiteko, astelehena lanean libre behar nuen. Dena den, Irunen geratuko naizen arren, aprobetxatzen saiatuko naiz. Parranda pixka bat egingo dut beharbada.

Melisa Ramírez

Praktikak egin behar ditut astelehenean, eta horregatik, ezin izango dut inora joan. Egia esan, inbidia ematen didate aterako direnek. Dena den, nire inguruko jendea ez da inora joango zubian.

Jai eguna den astearte horretan, bueltaren bat emango dut, baina batez ere, atseden hartuko dut.

Irene Gonzalez eta Feli Gonzalez

Irene Gonzalez: Irunen geratuko naiz. Gutxi falta da Eguberriak iristeko eta Erregeak etortzeko, eta ahal duguna aurreztu behar dugu. Dena ezin da egin. Nahiago dut familiarekin disfrutatu eta Irundik lasai ibili. Gustura gainera.

Feli Gonzalez: berdin berdin. Nahiago dut hemen egon. Irunen beste inon baino hobeto egoten naiz.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXEETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID: 655 70 98 93

T & T Hizkuntzak

Ingelesa 4 urtetik aurrera !!

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
-Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko eguna dela eta, Irungo Udalak doako ekintzak antolatu ditu azaroaren 28tik abenduaren 9ra arte

Azaroak 28:

EZ DOK AMAIRU SENTIKARIA

Debako herritarrek ikuskizun hunkigarri bat eskaintzen dute (kantuak, musika, dantza, olerkiak ...).

Ordua: 20:00etan.

Tokia: Amaia KZ.

Azaroak 29:

IGANDE SASOI: Sasoian eta euskaraz bizi nahi dut

Ordua: 10:00etatik 13:00etara.

Tokia: Colon ibilbidea.

Abenduak 1:

EUSKARA MUNDUAN

Euskararen inguruko dokumentala.

Ordua: 19:30etan.

Lekua: Amaia KZn.

Abenduak 2:

"AMAMA" (Helduentzako filma)

Familia bat, bi mundu. Jatorri bat, bi norabide. Baserriaren eta kalearen arteko gatazka, tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka, gurasoen eta semealaben arteko ezin ulertua.

Ordua: 19:30ean.

Lekua: Amaia KZn.

Sarrerak: DOAN, gonbidapenak Turismo Bulegoan banatuko dira azaroaren 23tik abenduaren 1era.

Abenduak 3:

"GLOBOART" EKIMENA. UTZI ZURE MEZUA!

Ordua: 10:00etatik 21:00etara

Tokia: San Juan plazan.

"MINTZODROMOA"

Ordua: 10:00etatik-12:30era.

Tokia: Hondarribiko Itsas Etxeko Auditoriumean. Doako autobus zerbitzua izango da.

"OIHAN VEGA, EUSKAL DISKOFESTA"

Ordua: 17:30etik-19:30era.

Lekua: San Juan plazan.

'DEMODE QUIARTET - EPA!'

Antzerki eta umore taldea.

Ordua: 19:30etatik 21:00etara.

Lekua: San Juan plazan. Eguraldi txarra izanez gero, Amaia Kultur Zentroan egingo dute.

Abenduak 9:

"BUAH TXABAL! "

Komedia ironikoa aurkeztuko du Jon Zubiagak, euskararen erabileraz zer pentsatua emateko. Buah txabal!

Ordua: 9:00etan eta 11:00etan.

Tokia: Amaia Kultur Zentroan.

Norentzat: institutuetako ikasleentzat

"IRRIEN LAGUNAK, EUSKARAREN TAUPADAK"

Martin Bertsok eta Tiritatxok bederatzi proba egingo dituzte, euskarak gure herrian duen osasuna neurtzeko. Musikaz, kolorez eta jolasez beteriko ikusikuzuna da.

Ordua: 17:30-18:30.

Tokia: Amaia KZn.

Sarrerak: gonbidapenak Turismo Bulegoan banatuko dira azaroaren 30etik abenduaren 8ra (Astelehenetan: 15:30-19:00, asteartetik larunbatera: 10:30-13:30 eta 15:30-19:00).

Beste zenbait elkartek antolatutako jarduera gehiago 15. orrialdean.

Hamargarren aldiz antolatu du Ficobak Euskal Kostaldeko Gabonetako Azoka

Hamargarren edizioa beteko du aurten Euskal Kostaldeko Gabonetako Azokak. Abenduko zubian izango da, 5etik 8ra. Eskaintza zabalduko du horrela, 2013an hiru eguneko azoka izan baitzen. Ficoba Fundazioak antolatzen du feria, eta erakustazokak berak antolatzen dituen ekimenen artean jendetsuena da. Joan den urtean 145 erakusketari eta 23.000 bisitari erakarri zituen. Sektore ezberdinetako erakusketariak biltzen ditu azokak. Gabonetako salmenta kanpaina aurreratzeko modua da haientzat, eta erosketak azken momenturako ez uzteko aukera bisitarientzat.

Larunbatean eta asteartean, 11:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte Ficobako ateak. Igandean eta astelehenean, berriz, 11:00etatik 21:00etara. Ficobako hiru pabiloiak beteko ditu azokak. Horietan, sektore askotako produktuak aurkitu ahal izango dira: elikadura eta gastronomia, osasuna eta edertasuna, dekorazioa, turismoa eta aisia, artisautza, moda, ibilgailuak edo bestelako zerbitzuak. Erakundeek eta elkarteek ere haien lekua izango dute Euskal Kostaldeko Gabonetako Azokan. Azpimarratzekoa da Gobernuz Kanpoko Erakundeen presentzia.

Familiako kide guztiei zuzendutako ekimena da. Horregatik, haurrentzako puzgarriak, ikuskizunak, bideojokoak, txokolatadak, eta bestelako jarduerak egongo dira. Gainera, bisitariei zuzendutako zozketak ere antolatuko dituzte. 12 urtetik beherakoak doan sartu ahal izango dira azokan. Gainerakoek hiru euroko sarrera ordaindu beharko dute. Ficoba erakustazokako parking-a berriz, doakoa izango da. Irundik kanpoko bisitariak erakartzeko modua izan daiteke.

Iazko edizioan, bisitarien gehiengo handia Gipuzkoatik hurbildu zen (% 87). Bisitarien %6 hurbildu zen Iparraldetik edo Frantziatik, eta %3 Nafarroatik. Gipuzkoako bisitarien jatorriari dagokionez, % 43 izan zen Behe Bidasokoa, Irungoa (% 35) edo Hondarribikoa (% 8). Ondoko eskualdeetatik ere jende asko hurbildu zen: % 14 Oarsoaldetik, eta % 34 Donostialdetik.

Leku berezia artisautzarentzat

Euskal Kostaldeko Gabonetako Azokaren baitan, Irungo Artisauen Azokaren VI.edizioa hartuko du Ficobako lehen pabiloiak. Gabiltza Gipuzkoako Artisauen Biltzarrak antolatzen du, eta berrogei artisau baino gehiago bildu izan ditu aurreko edizioetan. Erakusketak, tailerrak eta jolasak egingo dituzte.

GERARDO GARCÍA, Irungo Argazki Elkarteko presidentea:

“Argazkilaritzarekiko zaletasuna zabaltzea da gure helburu nagusia”

Lanpetuta dabil Gerardo García AFI-IAE Irungo Argazki Elkarteko presidentea. Irun Hiria Argazki Lehiaketako erakusketa prestatzen ibili dira egunotan, eta sarien banaketa dute arratsaldean. Hala ere, lehiaketari, elkarteari eta argazkilaritzari buruz hitz egiteko tartea hartu du. Eroso eseri da Izaga kaleko egoitzan, eta gustura aritu da berriketan.

Zein balorazio egin duzue aurtengo Irun Hiria Argazki Lehiaketari buruz?
Pozik gaude, parte hartzaileen kopurua handitu delako. 305 argazki jaso ditugu guztira. Gainera, estatu osoko lanak izan dira, eta horrek esan nahi du lehiaketak sona duela. Irun Hiria Argazki Lehiaketa gure jarduera nagusia da, eta asko zaindu izan dugu beti. Esaterako, kalitatezko katalogoa egiten dugu, lehiaketaren aktarekin, eta sariak irabazi dituzten argazkiekin. Gero erakusketa antolatzen dugu Amaian. Promozioari eta komunikazioari ere garrantzia handia ematen diogu. Lehiaketa ondo antolatzeak lana dakar, baina merezi duela uste dut.

Zuri-beltzeko argazkiak dira saritutako guztiak. Zergatik?
Argazkilaritzaren munduan, eta AFIn ere bai, ohiko eztabaida izaten da kolorearen eta zuri-beltzaren artekoa. Denetariko iritziak daude. Baina gero, egia da lehiaketa gehienetan epaimahaiak zuri-beltzera jotzen duela. Zergatik? Zuri-beltzak sormen handiagoa ahalbidetzen duelako. Argazki artistikoagoak izaten dira. Bestalde, koloreak atentzioa desbideratzen du. Zuri-beltzak gehiago nabarmentzen ditu figurak, eta itzalekin jolasteko aukera ematen du. Azpimarratu nahi nuke lehiaketako epaimahaiaren lana publikoa dela. Elkartean egiten dute hautaketa, eta edonor hurbil daiteke zuzenean ikustera.

Zein izan da IAEren bilakaera, eta zein da elkartearen egoera, gaur egun?
Argazkilaritza zaleen lagun talde baten ekimena izan zen, duela ia 40 urte. Junkaleko eskola zaharretan hasi ginen, gaur egun Oiasso Museoa dagoen lekuan. Gero Foru kalera joan ginen. Orain Izagan dugu egoitza, Kemen Dantza Taldea zegoen lekuan. Gure helburu nagusia argazkilaritzarekiko zaletasuna zabaltzea da. Horretarako, jarduera ezberdinak egiten ditugu urtean zehar. Argazkilaritza digitaleko ikastaroak arrakasta handia izaten du, adibidez. Otsaila-martxoa aldean egiten dugu. Ikastaroan, kontzeptu teknikoak lantzeaz gainera, giroa sortzen ahalegintzen gara. Gure harrobia da, ikastarotik pasa ondoren jende asko egiten baita bazkide.

Badago erreleboa, orduan?
Ez guk nahi bezain beste. Ikastaroetan bai, gaztetxoak hurbiltzen dira, eta neska gehiago mutilak baino, askotan. Gero gazte batzuek izena ematen dute elkartean. Baina, denborarekin, desagertuz joaten dira. Eta azkenean, lan egiterako orduan, jende berdina ibiltzen da beti. Jende heldua, eta gizonezkoa, batez ere. Nik ulertzen dut jubilatuek denbora gehiago izaten dutela. Baina jende gaztea behar dugu, inplikatuko dena eta ideia berriak ekarriko dituena. Guk argazkilaritza zaleak animatu nahi genituzke. Ikasteko eta ideiak trukatzeko aukeraz gainera, zaletasun berdina duen jendearekin elkartzeko modua eskaintzen baitu elkarteak.

Antzeko arazoa izaten da elkarte gehienetan.
Kontuan hartu behar da elkarteen kontzeptua aldatzen ari dela. Prozesu orokorra da hori. Gaur egun sare sozialetan ibiltzen dira gazteak, eta gu saiatu gara bide horri heltzen. Flickr-en kontua dugu, adibidez, eta argazkiak igotzen eta komentatzen ditugu. Dena den, niri iruditzen zait oso hotza dela hori. Bazkideekin egotea eta hitz egitea gustatzen zait. Gu astean behin elkartzen gara egoitzan. Astelehenetan proiekzioak edo hitzaldiak egiten ditugu. Asteazkena tailerraren eguna izaten da. Photoshop programa lantzen dugu, edo estudioko argazkilaritza, adibidez. Gero irteerak egiten ditugu. Asteburu pasa joaten gara nonbaitera, argazkiak ateratzera. Alde sozialak garrantzia handia du elkartean.

Beste lehiaketa asko antolatzen dituzue hiriko elkarteekin. Harreman ona duzue?
Elkarte askorekin lan egiten dugu, argazkilaritzarekin lotutako edozein lehiaketa edo jarduera antolatzeko. Argazki Rallya egin berri dugu adibidez, azaroaren 29an, Euskararen Egunen egitarauaren baitan. Udalarekin ere harreman ona dugu. Irun Hiria Lehiaketaren babeslea da, eta guk egutegia egiten laguntzen diogu. Esan daiteke hirian errotutako elkartea garela.

Nola aldatu da argazkilaritza 1970eko hamarkadan hasi zinetenetik?
Argazkilaritzak pixkanaka eboluzionatu du. Baina benetako iraultza, argazkilaritza digitalarekin iritsi da. Momentuan atera duzun argazkia ikustea, eta zuzendu ahal izatea, ikaragarria da. Argazkia errebelatzeko prozesua ezabatu dugu. Alde txarra ere badu digitalizazioak, eta ikastaroetan esaten dugu. Enkoadratzeko ohitura zabaltzen saiatzen gara, gero ordenagailuan mozteko aukerarik izango ez balego bezala. Argazki-segidak ere ez zaizkigu gustatzen. Argazkia hautatzea, ondo enkoadratzea, pentsatzea eta ondoren ateratzea gomendatzen dugu. Hori bai, kameren formatua berdin mantendu dute. Argazkilariak oso nostalgikoak izan dira beti. Horregatik, gaur egungo reflex kamerak aurrekoen oso antzekoak dira. Objektiboak ere ia berdinak dira.

Zer gomendatuko zenuke argazki onak ateratzeko?
Argazki mota asko daude, jakina. Baina IAEko bazkide batentzat, zaletasuna, lasaitasuna eta ideia argiak behar dira, jakitea zein argazki atera nahi dugun. Argazkilaritza gustuko duen jendearekin joatea ere gomendagarria da. Ingurukoek ez badute pazientziarik, ez dira argazki onak ateratzen. Beste baldintza asko ere badaude, argazkilariaren esku ez daudenak. Oso egun eguzkitsuak ez dira onak, adibidez, jende askok kontrakoa pentsatzen badu ere. Dena den, argazkilaritza artea da, eta beste arteek bezala, badu zati bat berezkoa dena. Gainerakoa landu edo ikasi daiteke. Argazki asko ikustea ezinbestekoa da: liburuetan, interneten, eta erakusketetan ere bai, aurrez-aurre ikustea ez baita berdina. Teknikak ere garrantzia du, baina ez da erabakigarria.

Irun Hiria Argazki Lehiaketako lanen erakusketa ikus daiteke Amaia Kultur Zentroan, abenduaren 13ra arte. Azaroaren 20an egin zuten sarien banaketa. Gai librean, Cuencako Tarancón herriko José Ramón Lunak jaso du argazki bilduma onenari dagokion “Peio Urtxegi” Ohorezko Saria. Lehen Saria Valentziako Juan Luis Durani eman diote. Irungo parte hartzaileen artean, Gemma Sebastianek lortu du lehen saria. Iruni buruzko gaian, Oiartzungo Rubén Redondoren argazkia izan da onena. José Luis López de Zubiria, Manuel Barreiro eta Xabier Mata izan dira epaimahaiko kideak.

Jarraipena emango dio Super Amara BATek Gabonetako Krosari

Bigarren edizioa egingo dute abenduaren 19an

Joan den urtean jarri zuen martxan Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak Gabonetako Krosa lasterketa. Harrera ona izan zuen, 767 parte hartzaile izan baitziren proba nagusian, eta 600 haurren lasterketetan. "Oso pozik gaude aurreko edizioaren arrakastarekin", onartu du Ibon Muñoz BATeko kirol zuzendariak. Hori dela eta, segida emango diote. Formula errepikatuko dute, baina berrikuntzak gehituko dizkiote, bilakaera izan dezan.

Festa giro batean inguratu nahi izan du hasieratik BATek Gabonetako Krosa. Eguberriei hasiera emateko ekitaldia izan dadin nahi dutela onartu du Ibon Muñozek. Horregatik, beste zenbait jarduera antolatu zituzten iaz, lasterketen inguruan. Aurten, eskaintza zabaldu egingo dute. "Hobetu beharreko alderdiei buruzko oharrak hartu genituen lehengo urtean. Beste hobekuntza batzuk ere pentsatu ditugu, lasterketak giro herrikoiagoa izan dezan", azaldu du Ibon Muñozek.

Edonola ere, lasterketak izango dira ekimenaren erdigune. Haurren probak 15:30ean hasiko dira, Luis Marianon. Adinen araberako lasterketak egingo dituzte. Ez da proba lehiakorra izango. Ez da saririk egongo, baina parte hartzaile guztiek merienda eta motxila jasoko dituzte. 700 dortsal banatuko dituzte aurten haurren artean. Hala ere, Ibon Muñozek argi utzi du ezin dutela kopurua gehiago handitu: "Lasterketaren kokapenagatik, muga bat jarri beharra dugu". Ondorioz, lehenbailehen izena ematea gomendatu dute.

> "Hobekuntza batzuk pentsatu ditugu, lasterketak giro herrikoiagoa izan dezan"
>
> **Ibon Muñoz, Super Amara BATeko kirol zuzendaria**

> "BAT ere Gobernuz Kanpoko Erakundetzat har daiteke"
>
> **Luis Mari Elosegi, Behar Bidasoa**

> "I zenbakia eramango dut, baina ez pentsa lasterketaren buruan egongo naizenik"
>
> **Juanma Garate, txirrindulari ohia**

Helduen lasterketa 16:45ean hasiko da. Irteera lekuz aldatuko dute, Gipuzkoa hiribidetik, Colon ibilbidera. Zabaltza plazaren parean egongo da, baina errepidean. Erdigunea, San Migel auzoa eta Dunboa zeharkatuko dituzte korrikalariek. 5 km-ko ibilbide laburra izango da, erosoa ia edonorentzat. "Maila duten korrikalariek ere gustuko dute distantzia. Joan den urtean marka onak izan diren lehen sailkatuen artean", gogoratu du Muñozek. Bi zailtasun ditu lasterketak: Hondarribia kaleko eta Nafarroa ibilbideko maldak. "Bigarrena bereziki, gogorra egiten da, ia amaieran dagoelako", gogoratu du Muñozek.

Lasterketaren ondoren, festa

Helmuga ez dute aldatu. Luis Marianoko oinezkoentzako gunean egongo da. Esfortzua amaituta, saria izango dute korrikalariek. Bina pintxo hartu ahal izango ditu bakoitzak, inguruko tabernetan. Bidashop merkatarien elkarteak emandako sarien zozketan sartuko dira, gainera. Sari banaketarekin batera egingo dute zozketa. Sariak ez dituzte dirutan emango, Super Amaran gastatzeko txarteletan baizik. Bakarkako sariak egongo dira eta taldekakoak ere bai. Bigarrenean parte hartzeko, info-gabonetakokrosa@gmail.com web gunean eman daiteke koadrilaren izena.

Sari berezi bat ere emango dute, lasterketaren jai giroarekin lotura duena. Mozorroen lehiaketa bat egingo dute, 5 km-ko lasterketako korrikalarien artean. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, irteeran egongo den photocall-ean argazki bat atera beharko dute. Bestalde, lasterketarekin lotutako argazkien lehiaketa prestatu dute, AFI Irungo Argazkilaritza Elkartearekin batera.batfotografia@gmail.com helbide elektronikoan jasoko dituzte argazkiak, 2016ko urtarrilaren 15era arte.

Behar Bidasoari babesa

Joan den urtean, Hondarribiko San Silvestre lasterketarekin senidetuta jaio zen Gabonetako Krosa. Eskualdeko lasterketen arteko lehiarik nahi ez zutela azaldu zuen orduan Ibon Muñozek. Horregatik, izenemate bakoitzeko euro bat Hondarribiko lasterketa antolatzen duen Sport Mundi fundazioari eman zioten, bere elkartasun ekimenetarako. Bi lasterketetan parte hartu zuten korrikalarientzat sari bereziak ere eman zituzten. Aurten bideak banatu dituzte, baina tirabirarik izan ez dela argitu du Muñozek: "Harremana ona da gure artean".

Gobernuz Kanpoko Erakundeei laguntza ematen jarraituko du, hala ere, Gabonetako Krosak. Parte hartzaile bakoitzeko euro bat jasoko du Behar Bidasoak, Ruandan egiten ari den lanera bideratzeko. "BAT ere GKEtzat har daiteke, egiten duen lan guztia kontuan hartuta", azpimarratu du Behar Bidasoako Luis Mari Elosegik.

Izen-emateak www.kirolprobak.com web gunean, Leire Sport-en edo Hondarribiko Papycop-en egin daitezke. Haurrentzat doakoa izango da. Helduek, 14 euro ordaindu beharko dituzte abenduaren 1etik aurrera, eta 18 euro lasterketaren egunean. Izena ematen duten lehen 750 korrikalariek buff bat jasoko dute opari. Denei kamiseta eta korrikalariaren poltsa emango diete. Lasterketako aitabitxia Juanma Garate txirrindulari ohia izango da. "1 zenbakia eramango dut, baina ez pentsa lasterketaren buruan egongo naizenik", aurreratu du Garatek. Festa giroan murgilduko da txirrindulari ohia.

Mariño

Aldaketa garaia

Denboraldiaurre zaila izan du aurten Mariñoko nesken talde nagusiak. Joan den denboraldian eroso eutsi zioten urdinek Bigarren Mailari. Baina udan iraultza izan da taldean. Jokalarien multzo handi batek taldea utzi du. Horien artean, esperientzia handiko neskak. Taldea asko gaztetu dute, jubenil mailatik datozen jokalariekin. Hasieran, kosta zaie martxan jartzea. Zazpigarren partidan lortu dute lehen garaipena. Azken jardunaldietan, berriz, hobekuntza agerikoa izan da. Bigarren Mailako zortzigarren postuan dago orain Mariño, hamaika punturekin, gora begira.

Belaunaldi aldaketarekin batera hartu du Iñigo Olaizola entrenatzaileak Bigarren Mailako taldearen gidaritza. Joan den denboraldian bigarren entrenatzaile izan zen, eta aurrekoaren lekukoa hartu bezain pronto, buruhausteak izan zituen. Hamaika jokalarik utzi zuten taldea denboraldiaren amaieran. Horietako asko, Mariñon urte mordoxka egindako neskak ziren. “Nortasun handiko jendea zen. Esperien-tzia hori ordezkatzea zaila da”, onartu du Olaizolak. Gainera, Melodi Aguilar kapitainak lesio larria izan zuen. Tibia eta peronea hautsi zituen, eta errehabilitazioan dabil oraindik: “Gogorra izan da ulertzea lesio larria dela. Ez nuen uste horrenbesteko denbora eta ahalegina eskatuko zituenik. Gimnasiora joaten naiz astean lau aldiz, lehenbailehen osatzeko”.

Joan den urteko taldetik, bospasei neska dira Mariñon jarraitzen dutenak. Taldearen oinarria osatu dute. Ginerako taldekideak, jubenil kategoriatik datozen neska gazteak dira. Maila handiko jokalariak dira, hori bai. “Jubeniletan bi aldiz Gipuzkoako Txapeldun izan dira”, gogoratu du Iñigo Olaizolak. Urte asko daramatzate elkarrekin jokatzen, eta ondo ezagutzen dute elkar. Hori dela eta, egokitze prozesua bi-txia izan dela azaldu du Aguilarrek: “Gazteak helduen taldera egokitu beharrean, ia alderantziz egin behar izan dugu, helduak gutxiago garelako”. Dena den, harrera ona izan dela, eta adinean aldea dagoen arren, harremana ona dela baieztatu du kapitainak.

Taldearen integrazioa baino zailagoa izan da Bigarren Mailara egokitzea. Jubenil mailatik jauzi handia dago, eta jokoa oso ezberdina da. “Esperientzia handiko jokalari helduak daude. Jokoa fisikoagoa da, eta indar handiagoa dute. Gainera, luze jokatzen dute askotan. Beraz, baloia eskuratzeko airez lehiatu behar izaten dugu, eta guretzat ez da egokiena”, argitu du Iñigo Olaizolak. Maddi Aranguren taldeko gaztetxoetako bat da, eta erritmoan dagoen aldea nabarmendu du: “Jokoa askoz azkarragoa da, eta erne egon beharra dago. Ez dago asko pentsatzeko denborarik”. Esperientzia gehien duten taldekideen laguntza jaso dute gazteek. “Aurkariak ezagutzen dituzte, eta pista batzuk ematen dizkigute, taldeari komeni zaiona egiteko”, aipatu du Arangurenek.

Etorkizunerako ikasketa

Zazpi jardunaldi behar izan zituen Mariñok irabazteko. Lehen partida galdu egin zuen, eta hurrengo bostak segidan berdindu zituen. Ez zuen neurketak borobiltzea lor-tzen. “Jubenileko edo Bigarren Mailako 90 minutuak ez dira berdinak. Bigarren mailan, irabazten ari bazara ere, azken txanpan arlo fisikoak edo psikologikoak huts egiten baldin badizute, makalaldi bat izan dezakezu, eta aurkariak aprobetxa dezake”, adierazi du Melodi Aguilarrek. Iñigo Olaizola entrenatzaileak azpimarratu du bereziki geldikako jokaldietan sufritzen dutela, jokalari txikiak eta arinak dituztelako. Bitxikeria argigarria kontatu du: “Hamalau jokalarik S neurriko kamiseta daramate”. Jokalari teknikoak dira, ondo mugitzen dute baloia. Baina batzuetan, ezin izaten diote haien jokoari etekina atera. “Gu baloiarekin atzetik irteten saiatzen gara, baina beti ezin izaten da, presio handia egiten digutelako”, argitu du entrenatzaileak.

Ligak aurrera egin ahala, ikasiz eta egokituz joan dira. Sailkapenaren erditik gora ibiltzeko ahalmena dutela uste dute neskek. Horretarako egin beharrekoen zerrenda luzatu du Maddi Arangurenek: “Entrenamenduetan, ezinbestekoa da kontzentrazioa eta ariketetan gogor saiatzea. Partidetan, garrantzitsuena da gure artean elkarri laguntzea eta animatzea”. Mailari eustea da taldearen helburu bakarra, eta ez dirudi oso larri ibiliko direnik. Onena, taldearen gaztetasuna kontuan hartuta, jokalariek hartuko duten esperientzia da. Etorkizunerako talde polita osatzen ari direla pentsa daiteke. Gainera, goraipatzekoa da neska gehienak Mariñoren harrobian hazitakoak direla.

Feroe uharteetatik Landetxara

Mariñoren hamaikakoetan deigarria da Eyðvør Klaksteinen izena. Faroe uharteetako hogei urteko neska da, eta izena bezain bitxia da bere istorioa. 2015eko udaran, Gipuzkoara etorri zen, Donosti Cup-eko lehiaketan parte hartzeko. Faroe irletako haurren talde baten entrenatzailea zen. Baina jokalaria ere bada, eta antolakuntzako kideei galdetu zien ea talderen batean jokalariren bat behar zuten. Mariñoko jubenilen taldean lekua egin zioten, Iñigo Olaizolaren bidez, antolakuntzan aritzen baita. Beraz, Irungo urdinekin aritu zen Eyðvør Klakstein Donosti Cup lehiaketan. Azken egunean elkar agurtu zuten neskek, negar-malkotan. Kamiseta oparitu zioten irundarrek, jokalari guztien sinadurekin.

Sare sozialen bidez harremanetan jarraitu zuten neskek. Eta denboraldiaurrea hasita, jokalariak falta zitzaizkiela ikusita, Irunera etorri nahi ote zuen galdetu zioten. Denen harridurarako, Klaksteinek baiezkoa eman zuen. Klubak gestio guztiak egin zituen, neska ligako lehen partidarako Irunen egon ahal izan zedin. Integratzea kostatu zaio, hizkuntza, herrialdea, eta futbola bera ere ezberdinak direlako. “Kirol arloan, ekarpen handia egin dio taldeari. Bizkorra da, eta jaurtiketa ona du”, baieztatu du Iñigo Olaizolak. Entrenatzailearen etxean bizi da momentuz, eta gaztelania ikasten ari da. Esperientzia aberasgarria izaten ari da Klaksteinentzat, baita bere taldekideentzat ere.

Sakoneko arazoa

Genero indarkerian adituak bildu ditu Uxoa elkarteak Irunen

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a. Mobilizazio jendetsuak izan dira aurten ere, hiri eta herri askotan. Irunen, elkarretaratzea deitu dute Udalak eta zenbait emakumeen elkartek, Zabaltza plazan. Bertatik atera da, beranduago, TAS Txingudi Anti Sexista plataformak antolatutako manifestazioa. Erakundeak, elkarteak eta norbanakoak elkartzen direnean, gaitzespena ia orokorra dela dirudi. Emakumeen aurkako indarkeriaren datuek, berriz, agerian uzten dute arazoaren tamaina.

Emakunde Emakumearen Euskal Institutuaren datuen arabera, 2014an 4091 emakume izan ziren indarkeria matxistaren biktima, Euskal Autonomia Erkidegoan. Horien % 27, 15 eta 29 urte arteko gazteak ziren. Erasotzaileei dagokienez, 4tik 1, 30 urtetik beherakoa zen. Gazteen artean genero indarkeriak duen presentzia ikusita, orain arte hartu izan diren neurriak zalantzen jomuga bihur daitezke. Arazo konplexua den neurrian, ikuspuntu ezberdinetatik heltzea komeni da. Horixe egin dute azaroaren 23an Irungo Uxoa elkartean. Diziplina ezberdinetako adituak bildu dituzte mahai inguruan, genero indarkeriaren gaiarekin lotutako zenbait aspektu argitzeko asmoz.

> "Sexuen arteko desberdintasuna da oinarrian dagoen arazoa"
>
> **Beatriz Rodríguez, abokatua**

Beatriz Rodríguez abokatua da, eta zuzenbide penaleko epaile aritu da, hamahiru urtez. Egunean bi epaiketa ikusi izan ditu genero indarkeriaren inguruan. Gizartemaila, kultura eta adin guztietako kasuak ikusi dituela baieztatu du. "Denon arazoa da. Beti existitu izan da, eta mentalitatea aldatzen ez dugun bitartean, ez da desagertuko. Sexuen arteko desberdintasuna da oinarrian dagoen arazoa", adierazi du Rodríguezek. Bide judizialak eta erasotzaileen zigorrak arreta handia pizten dute. Hala ere, bere eremua den arren, aurreko pausuen garrantzia azpimarratu du Beatriz Rodríguezek: "Epaiketa iristen denerako, esan nahi du delitua egon dela, eta beraz, sistemak huts egin duela. Egokiena litzateke bide judizialera iritsi behar ez izatea".

Auzitegien aurreko lana, poliziarena izaten da. Xabier Coca Ondarretako komisariako komisariordea da, genero indarkeriaren biktimen sekzioko arduraduna. EAEn, batez beste, eguneko 11 salaketa jasotzen dituztela azaldu du. "Babes neurri ezberdinak adosten ditugu biktimekin. Laguntza psikologikoa eta judiziala eskaintzen diegu. Bestelako zerbitzuak ere baditugu: udalekin edo diputazioarekin adostutako ostatuak, eta indarkeria kasua oso larria denean, eskolta zerbitzuak", azaldu du Xabier Cocak. Aldi berean, epaitegietan amaitu daitekeen inbestigazioa hasiko da. Lagungarriak izan daitezkeen xehetasunak aipatu ditu poliziak: "Osasun zentro baten txostena baldin badago, proba moduan erabili ahal izango da. Bestalde, beti bertsio berdina mantentzeak garrantzia du. Anbiguotasunean ez erortzeak sinesgarritasuna ematen dio biktimari".

Inbestigazioetarako eragozpen handienetako bat da kasuen %70 indarkeria psikologikoko kasuak direla: irainak, mehatxuak, kontrola etab. "Emakumeak debaluatzen eta gutxiesten dituzte, autoestimua murrizten diete. Familiarengandik eta lagunengandik isolatzen dituzte, haien gaineko kontrola edukitzeko", argitu du Cocak. Gazteen artean, ohiko bilakatzen ari da ezkutuko indarkeria. Teknologia berrien eraginean jarri du arreta Beatriz Rodríguez abokatuak: "Kontu handiz ibili behar da mugikorrarekin, sare sozialekin, argazkiekin etab. Intimitate eskubideari eutsi behar diote gazteek". Hezkuntzan eta formazioan lan handia egin behar dela uste du Rodríguezek. Gazteek arrisku egoerak antzematen eta garaiz eteten ikasi behar dutela nabarmendu du, gurasoak gertatzen denaz jabetzen direnerako, berandu izan daitekeelako. "Harremanak berdintasunean oinarrituta bizi behar direla transmititu behar diegu gazteei", erantsi du abokatuak.

> "Emakumeak debaluatzen eta gutxiesten dituzte"
>
> **Xabier Coca, komisariordea**

Izebergaren behealdea

Salatzen diren indarkeria matxista kasuak, izebergaren punta besterik ez dira. %20 inguru. "Biktima batzuek, salaketa jartzera joaten direnean, 25-30 urtez indarkeria aguantatzen egon direla adierazten dute", jakinarazi du Xabier Cocak. Zergatik ez dute salaketa lehenago jartzen? Arrazoi ezberdinak zerrendatu ditu Beatriz Rodríguezek: dependentzia emozionala, dependentzia ekonomikoa, seme-alabak etab. Indarkeriaren ondorengo adiskidetze faseak eragina duela uste du Cocak: "Erasotzailea ere, psikopata ez baldin bada behintzat, damutu egiten da erasoaren ondoren. Hurrengo egunean loreak oparitzen dizkio, bazkaltzera gonbidatzen du edo zinemara eramaten du. Oso momentu zoriontsuekin amaitzen da fase hori, eta nahasmen handia sortzen du biktimarengan".

Salaketak adierazten du edalontziak gainezka egin duela. Baina arazoa askoz lehenago hasten da. Zaila da hasiera antzematea, eta lagunek eta senideek laguntza eman diezaiokete biktimari. Lorena Pidal Gipuzkoako Itxaropen Telefonoko langilea da, eta pista batzuk eman ditzake. Genero indarkeriaren aztarnak antzematen dituzte dei askotan: autoestimu baxua, beldurra edo bakardadea. "Telefonoan larritasuna, edo estutasuna antzematen ditugu. Hala ere, kostatzen zaie gertatzen zaienari izena jartzea. Haritik tiraka, etxean egoera toxiko bat dagoela konturatzen gara, gatazkak edo errespetu faltak daudela. Ondoren mehatxuak, kontrola edo bestelako egoerak agertzen dira". Epaitegietatik eta komisarietatik urrun dago genero indarkeriaren jatorria.

Toki Alai HH

Arrigain Asesores S.L.
ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK
Asesoría Arrigain
Zerbitzuak:
Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...
Errenta altorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...
San Ramon kalea, 3 atzea, sarpidea Euskal Herria hiribidetik – irun
Telf: 943536080 - 676756975
www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Txingudi Ikastola BHI Marina San Pablo Sanchez, Aixa Martin Jimenez, Ane Garcia Martinez, Lorena Olabera Iglesias, Eider Amigo Echaniz eta Naiale Lopetegi Amostegi

XIBEROAKO KRONIKA (1)

2015eko martxoaren 8a.

Gaur goizean goiz jaiki gara eta 9:15etan San Juan plazan elkartu gara. 9:30etan irten gara Irundik, eta Donibane Garazira iritsi gara. Han, herria bisitatu dugu eta benetan polita iruditu zaigu Nafarroa Behereko hiriburua. Bazkalorduan, gaztelua dagoen lekura joan gara, bazkaldu eta erromeria dantzatu ondoren, Xiberora joan gara, Urrustoi herriskara, maskarada ikustera, Maskarada hasi baino lehen, urduri genbiltzan, haragi, heste, tripaki... zatiren bat eroriko ote zitzaigun edo. Zorionez, ez zaigu halakorik jazo. Denok isil-isilik ginenean, Ekaitzek, bere mukiak kendu ditu, baina zarata handia agin duenez, jende guztia barrez, bera begiratzen geratu da. Amaitzerakoan, autobusez, Irabarneko gaztelura abiatu gara. Iristerakoan, afaldu, maletak hartu, logelara joan eta berriro jangelan erromeria dantzatu dugu. Gero, pijama jantzi eta gelako mutilekin eta Lezoko jendearekin aritu gara hizketan. Egun oso ona izan da.

2015eko martxoaren 9a.

Gaur goizean, kanpai hotsarekin esnatu gara. Jangelara joan, gosaldu eta prest geundenean autobusa hartu eta elurretara joan gara. Han ez du espero genuen bezain besteko hotza egin. Elurretan jolasten egon gara, ondoren harri bat ikustera joan gara mendian gora, baina elur azpian zegoenez, ezin izan dugu ikusi eta gogoz geratu gara.

Arratsaldean, Maulera joan gara eta han igaro ditugu ordu pare bat. Afalorduan, Niko Etxarten kontzertua eduki dugu, asko dibertitu gara eta azkeneko abestia denok elkarrekin kantatu dugu. Hamabiak inguru zirenean, bakoitza bere logelara joan da eta gu, hizketan geratu gara ordu pare batez.

2015eko martxoaren 10a.

Egunsentian kanpai hotsarekin esnatu gara berriro, kanpai madarikatua! Azkeneko eguna denez, denok triste samar egon gara. Lehenengo, gasnategira joan gara: Azalpena entzun eta gero, gasna erosi dugu, oso ona da. Holtzarteko zubira joan gara ondoren, eta bidean errinozero itxurako zuhaitz bat aurkitu dugu, eta argazkia atera diogu. Ondoren, bazkaldu eta lezoarrekin batera, argazkia atera dugu denok. Irun aldera abiatu gara berriz. Autobusean denok nekatuta geundenez, asko, lokartu egin dira.

Asko gustatu zaigu bidaia eta bene-benetan oso ondo pasa dugu, errepikatzeko modukoa izan da!

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo Kateako S.R.A. andreak kantatua.

(El Bidasoa, 1959-2-7)

Bartarratsian zen komeria

Bartarratsian zen komeriya
putzura erori eta itto da iya
iru txiki sobra erana
urak ere beregana
Antoniyok izandu du
ateratzen lana.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Establo Piratak mapan jarri du Irun

Aitzindariak izan dira, Espainiako lehen scooter kluba jarri dutelako martxan. Jende asko erakartzen dute hirira

Ezkerrean Juan Luis Cáceres, erdian Ruben Martínez, eskuinean Garikoitz Mendoza, eta klubeko bi gazte.

Irristatze kiroletan erreferente izan da Irun urtetan. Gaur egun ere bada, scooter modalitateari eta Establo Pirataren lanari esker. Juan Luis Cáceresen, Andres Robledaren eta Aitor Larrearen ekimenez sortu zen proiektua. Denda txiki batekin hasi ziren, eta urtebete beranduago, skate park estalia zabaldu zuten, Letxunborro etorbidearen ondoan. Gaur egun goi mailan lehiatzen dira El Establo Piratako kideak, eta ehunka patinatzaile erakartzen dituzte Irunera. Juan Luis Cáceres sortzailearekin eta Garikoitz Mendoza bazkide baten aitarekin hitz egin dugu.

Estatu mailan erreferente zareten arren, oraindik ezagutzen ez zaituzten jendea badago Irunen.

Juan Luis: Scooterra kirol berria da, eta patinatzaileak oso gazteak dira. Normala da jendeak ez ezagutzea, hasiberriak garelako. Urratsak ematen ari gara, kirola hazi eta egonkortu dadin. Espainiako lehen scooter kluba sortu dugu.

Zein da lehiaketen funtzionamendua?

Juan Luis: lehiaketa batzuk guk geuk antolatzen ditugu, beste batzuk, berriz, scooter markek. Estatu osoan zehar asko mugitzen gara, baina kontuan hartu behar da, gehienez, hilean lehiaketa bat edo bi egoten direla Espainia osoan.

Zein da kategorien banaketa?

Juan Luis: hamabi urtetik beherakoak, hamabitik gorakoak eta Pro maila. Pro kategorian babesleak dituztenek parte hartu ohi dute.

Garikoitz: beste kirol bateko edozein elkarteren antzekoa gara. Edonor sartzen da, batzuk Pro mailan parte hartzen dute, baina denek dute lehiatzeko aukera.

Kanpoko jendea ere badago klubean.

J.L: Madrilgo, Bartzelonako edo Castelloko gazteak ditugu, hemendik kanpo lehiatu daitezen eta presentzia izan dezagun.

Arrakasta izan duzue orain arte?

J.L: Joan garen leku bakoitzean zer edo zer irabazi dugu. Haurren kategorietan batez ere.

G: Gure arrakastarik handiena da gutxieneko baten kirolaren inguruan jende asko elkartzen ari garela. Gurasoen multzo bat ari da proiektua aurrera eramaten: alokairua, segurtasuna eta zaborrak ordaintzen ditugu, besteak beste. Kirola gustuko duen jendeari zerbitzua ematen ari gara.

Letxunborro etorbidean kokatu zarete, Irunen. Zergatik hemen?

J.L: Irunen jende askok patinatzen du. Proiektua martxan jartzea erabaki genuen, skate park-etan errespetu falta asko egoten delako. Scooter, skate eta bmx modalitateen arteko eztabaidak egoten dira maiz. Hemen hezkuntza jasotzen dute gaztetxoek, errespetua izan dezaten. Arrapala ezberdinak ditugu, maila guztietako jendea ibili ahal izan dadin. Gainera leku estalia eta segurua da.

G: Bigarren solairuan, gurasoentzat pentsatutako lekua dago. Haurrak ikus ditzakegu handik, lasai ederrean.

Denda txiki bat ere badago.

G: Marka guztiekin lan egiten dugu, eta hurbiltzen diren zaleei behar duten materiala ahalbidetzen saiatzen gara. Scooterean espezializatutako denda profesional bakarra da inguru honetan.

Arazorik izan al duzue orain arte?

G: Aparkaleku faltagatik, inguruko enpresei eragozpenak eragin izan dizkiegu. Batzuetan berrogei auto iristen dira batera, eta ondoko enpresei aparkalekuak bete eta enbarazu egiten diegu. Barkamena eskatu nahi genieke, eta udalari laguntza eskatu, egoera kritikoa baita.

Ruben Martínez skate irakaslea da El Establo Piratan.

Orain arte ez zegoen skate-a praktikatzeko gune estalirik. El Establo Pirata leku egokia da. Gainera, haurrei hastapen ikastaroak ematen dizkiegu, irristatze kiroletan has daitezen. Scooter, skate, bmx edo patinen modalitateetan erabiltzeko prestatuta daude arrapalak.

Skate park estalia irekitzearekin batera, Iruni eta inguruari balio erantsia eman diozue. Jende asko erakartzen duzue?

Sare sozialekin lan handia egiten dugu, eta horrek Espainiako eta Frantziako jendea erakartzen du. Espainiako txapelduna askotan etorri izan da, eta estatu osoko Pro mailako patinatzaileek guk eskatu gabe etorri nahi izaten dute. Baina batez ere, sare sozialetako lanari esker etortzen da jendea. Haurrak eta gaztetxoak gurasoekin etortzen dira, eta hiriko hoteletan, pentsioetan edo kanpinetan egiten dute lo, eta eskualdeko establezimenduetan kontsumitzen dute. Jende asko etortzen da, erreferente garelako. Horrek eragin positiboa du hirian.

Nora jo daiteke bazkide izateko edo galderaren bat egiteko?

www.elestablopirata.com web gunean sar daiteke, elestablopirata@gmail.com helbide elektronikora idatzi, edo 943 901790, 664713294 eta 646173825 telefono zenbakietara deitu. Arratsaldero egoten da zabalik, astelehenetik igandera. Gainera, urtebetetzeak ospatzeko aukera ere badago, haur bakoitzeko 10 €-ko prezioan (ogitartekoa edo pizza gehi edaria barne).

Ekintzak

MASTERCLASS SAIO SOLIDARIOA

Zer? "Aire-tanta bat, bizi bat " Zunba Fintess klasea. Zunbako sei irakaslek dena emango dute eszenatokiaren gainean, Janire txikiaren alde. Errenteriako neskak operazio bat behar du bizitza autonomoagoa izan dezan.

Ez ezazue galdu, eta egin ekarpena, zunba dantzatuz!!!!

Bildutako diru guztia Janirerentzat izango da. Eskatu zuen sarrerak ekitaldi horretan parte hartu behar duen edozein irakasleri. Ikusle bezala ere parte hartu daiteke, borondatea emanez.

Noiz? Abenduak 6

Ordua? 10:30etik 13:30era

Non? Uranzu pilotalekuan.

MAI EGURZAREN ERAKUSKETA

Zer? Komikia eta hari lotutako arteak. Mai Egurza irundarraren erakusketa: Bere obran zeharreko ibilbidea laburbiltzen duten 24 panel, hainbat ilustraziorekin.

Noiz?: Azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

Ordutegia? astelehenetik ostiralera, 9:00etaitk 20:00etara, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Lekua? CBA Kultur Gunean (San Juan plazan).

GORPUTZ-ADIERAZPEN

Tailerrak

TAILERRA

Zer? 6 eta 12 urte arteko umeeei zuzendutako gorputz adierazpen tailerra.

Egunak? astelehena eta asteazkena.

Ordua? 17:00etatik 18:30era.

Non? Estudio Biomédica (Nafarroa hiribidea, 15).

Izen-emateak eta informazio gehiago: 651 360 571.

IKASTAROA: "DISEINA EZAZU LINEAKO PRESTAKUNTZA IKASTARO BAT"

Zer? % 100 diruz lagundutako ikastaroa. Mendibil Prestakuntzarako Zentroak eskainiko du.

Egunak? abenduak, 9, 11, 14 eta 16.

Ordua? 15:00etatik 20:00 etara.

Iraupena? 20 ordu.

Izena emateko epea? abenduak 4.

Informazio gehiago? Mendibil Prestakuntzarako Zentroa (Letxunborro hirib. 58) 943 610 610.
comunicacion@apmendibil.com

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Tailerrak, Estrategia Jokoak, Animazioa, Bideo-Jokoak, Erakusketak eta gehiago...

Abenduak 1
Zer? Modelatze-tailerra
Lekua: ESKUKA (Jose Eguino, 9 - behe).
Ordua: 18:00 - 20:00
Adina: 13 urtetik aurrerakoak

Abenduak 2
Zer? Eskulan tailerra. Elementu birziklatuekin erretratuak egitea.
Lekua: KABIGORRI.
Ordua: 17:00 - 18:30.
Adina: 4 urtetik goragoak.

Komiki tailerra Mai Egurzarekin.
Lekua: Katea-Landetxako haurren txokoan (Araba kalea, 36).
Adina: 10 - 12 urteko neska-mutilentzat.

"Magiamundi", magia ikuskizuna, Berto magoaren eskutik.
Haurrentzat.
Lekua: KABIGORRI.
Ordua: 18:45 - 19:45.
Adina: Haurrentzat

Abenduak 3
Mahai-jokoen arratsaldeak.
Lekua: Tinta Cómicen. Ordua: 16:30 - 20:30.
Adina: 13 urtetik aurrerakoak.

Abenduak 4
Marrazki
Lehiaketa: Fantasiako arrazak.
Lekua: KABIGORRI.
Ordua: 19:00 - 20:30.
Adina: adin guztietarako egokia.

Informazio guztia:
www.irun.org/igazte
gazte@irun.org
edo 607 771 173 .

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 bene. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Azroaren 24tik abenduaren 6ra arte

Zer? Froilan Celadaren erakusketa.

Non? Laboral Kutxan. Colon, 13.

Ordua? Astelehenetik larunbatera: 18:00-21:00; Igande eta jai egunetan: 11:30-13:30.

Prezioa? Doako sarrera.

Abenduak 2

Zer? Eguberrietako argien piztea.

Non? San Juan-Etxeandiaren eta Eliza kalearen arteko haur parkean.

Ordua? 18:30etan.

Abenduak 3

Zer? Tinta Comic-ek antolatutako mahi jokoen arratsaldea.

Non? Tinta Comic-en. Jose Eguino, 10 behea.

Prezioa? Doako sarrera.

Abenduak 5

Zer? “Jobs” antzerkiaren emanaldia.

Ordua? 20:00etan.

Non? Amaia KZn.

Prezioa? Sarrera orokorrak, 14 euro; Langabeek, 14 urtetik gorakoentzat. 12 urtetik gorakoek eta Gazte Txartela dutenek, 9 euro.
Salmenta?
- Interneten bidez: ticket.kutxabank.es
- Zuzenean: Irungo Turismo bulegoan, Luis Marianon.
- Zuzenean: Ikuskizunaren egun berean, leihatilan.

Abenduaren 5etik 8ra

Zer? Euskal Kostaldeko Gabonetako Azoka.

Ordutegia?
Larunbata 5 eta asteartea 8: 11:00-20:00.
Igandea 6 eta astelehena 7: 11:00-21:00.

Non? Ficoban.

Prezioa? 3 euro. 12 urtetik beherakoak, doan.

Informazio gehiago, 6. orrialdean.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Azaroak 28:
EZ DOK AMAIRU SENTIKARIA
Debako herritarrek ikuskizun hunkigarri bat eskaintzen dute (kantuak, musika, dantza, olerkiak ...).
Ordua: 20:00etan.
Tokia: Amaia KZ.

Azaroak 29:
IGANDE SASOI: Sasoian eta euskaraz bizi nahi dut
Ordua: 10:00etatik 13:00era.
Tokia: Colon ibilbidean.

Abenduak 1:
EUSKARA MUNDUAN
Euskararen inguruko dokumentala.
Ordua: 19:30ean.
Lekua: Amaia KZn.

Abenduak 2:
"AMAMA" (Helduentzako filma)
Familia bat, bi mundu. Jatorri bat, bi norabide. Baserriaren eta kalearen arteko gatazka, tradizioaren eta bizimodu berriaren arteko talka, gurasoen eta semealaben arteko ezin ulertua.
Ordua: 19:30ean.
Lekua: Amaia KZn.
Sarrerak: DOAN, gonbidapenak Turismo Bulegoan banatuko dira, azaroaren 23tik abenduaren 1era.

Abenduak 3:
"GLOBOART" EKIMENA. UTZI ZURE MEZUA!
Ordua: 10:00etatik 21:00etara.
Tokia: San Juan plazan.
"MINTZODROMOA"
Ordua: 10:00etatik-12:30etara.
Tokia: Hondarribiko Itsas Etxeko Auditoriumean. Doako autobus zerbitzua izango da.
"OIHAN VEGA, EUSKAL DISKOFESTA"
Ordua: 17:30etik-19:30era.
Lekua: San Juan plazan.
'DEMODE QUIARTET - EPA!'
Antzerki eta umore taldea.
Ordua: 19:30etik 21:00etara.
Lekua: San Juan plaza. Eguraldi txarra izanez gero, Amaia Kultur Zentroan egingo dute.

Abenduak 9:
"BUAH TXABAL! "
Komedia ironikoa aurkeztuko du Jon Zubiagak, euskararen erabileraz zer pentsatua emateko.
Ordua: 9:00etan eta 11:00etan.
Tokia: Amaia KZn.
Norentzat: institutuetako ikasleentzat
"IRRIEN LAGUNAK, EUSKARAREN TAUPADAK"
Martin Bertsok eta Tiritatxok bederatzi proba egingo dituzte, euskarak gure herrian duen osasuna neurtzeko. Musikaz, kolorez eta jolasez beteriko ikusikuzuna da.
Ordua: 17:30-18:30.
Tokia: Amaia KZn.
Sarrerak: gonbidapenak Turismo Bulegoan banatuko dira azaroaren 30etik abenduaren 8ra (Astelehenetan: 15:30-19:00, asteartetik larunbatera: 10:30-13:30 eta 15:30-19:00).

10. edizioa!

euskal kostaldeko gabonetako azoka

abendua 5 - 8

larunbata 11:00 - 20:00 / igandea: 11:00 - 21:00 / astelehena: 11:00 - 21:00 / asteartea: 11:00 - 20:00

KRUZERO BAT OPARITZEN DUGU!

ETA GABONETAKO LOTE ETA SASKIEN ZOZKETAK EGUNERO!

Irudi informatiboak, ez kontratuzkoak / Zozketen arauak: expo.ficoba.org

#FeriaNavidad2015

expo.ficoba.org

P dohainik

Ficobara, zatoz topoan!
euskotren (Irun-Ficoba geltokia)

Antolatzaile

FICOBA

Avda. Iparralde, 43
20302 Irun-Gipuzkoa
+34 943 66 77 88
www.ficoba.org

Babesleak

Gipuzkoako Foru Aldundia

kutxa

irun